



“Microsoft Office 2003 edo 2007 bulegotika paketea euskaraz”

Data: 2010eko urria
Egilea: Eusko Jaurlaritza
(Bulego Teknologikoa)

Gida honen helburua da azaltzea zer pausu eman behar dituzun (laneko ordenagailuan zein etxeokan) zure ohiko Microsoft Office bulegotika programak euskaraz erabili ahal izateko: Microsoft Office Word, Excel, PowerPoint eta Outlook, hain zuzen. Ikusiko duzunez, pausuak oso errazak dira eta hiru minutu eskas beharko dituzu prozesu osoa burutzeko.

Informazio orokorra

Jarraibideekin hasi baino lehen, beharrezkoa da honako informazioa kontuan hartzea:

Informazio garrantzitsua:


Microsoft Office 2003 edo 2007 instalatu baino lehen, beharrezkoa da Windows XP-ren euskarazko LIPa instalatzea. Beraz, komeni da “*Microsoft Windows XP sistema eragilea euskaraz*” gidaliburua irakurtzea. Artikulu horrek azaltzen ditu zer-nolako pausuak eman behar dituzun Microsoft Windows XP sistema eragilea euskaraz erabiltzeko.

Hauk dira zure ordenagailuak betebeharreko baldintzak:

Instalatuta eduki behar dituzun sistema eragilea eta paketea:	<ul style="list-style-type: none">• Windows Vista edo• Windows XP <i>Service Pack 2</i>
Behar den softwarea	<ul style="list-style-type: none">• Word®, Excel®, PowerPoint® eta Outlook® dituzten Microsoft Office 2003 edo 2007 paketeen gaztelaniazko bertsioa

Aipatutako eskakizunak zure ordenagailuak betetzen dituela egiaztatzeko, jarraitu hurrengo pausuak:

Mahaigainean dagoen “*Mi PC/Ordenagailua*” ikonoa arratoiarekin aukeratu, klik eginez. Jarraian, eta arratoia mugitu gabe, sakatu arratoiaren eskumako botoia. Horrela, agertuko zaizu aukera ezberdinez osatutako zerrenda luze bat, horien artean, “*Propiedades/Propietateak*” izena duena. Hori egin eta gero, hurrengo irudiaren antzeko zerbait ikusgai izango duzu, eta, bertan, jakin beharreko informazioa edukiko duzu:



Baina, zer behar duzu Office bulegotika euskaratzeko?

Pakete informatiko bat instalatu behar duzu: Office aplikazioen hizkuntza-entzafazaren paketea edo **LIP¹** izenekoa, hain zuzen.

Aipatutako LIPa instalatu ondoren, Office paketearen aplikazioak (morroi, elkarrizketa-koadro, menu eta laguntza-gaietako testuak) LIPeko hizkuntzan bistaratuko dira, zure kasuan, euskaraz. Itzulita ez dauden testuak Windows-en oinarri-hizkuntzan erakutsiko dira.

Adibidez, Microsoft Office-n gaztelaniazko bertsioa erosi baduzu eta euskarazko LIPa instalatzen baduzu, testuaren zati batzuk gaztelaniaz geratuko dira.


Hemen azalduko diren pausuek erakutsiko dizute Microsoft Office-n eman beharreko pausuek. Hala ere, **esan behar dugu, aipatuko ditugun jarraibideak baliagarriak direla**

Microsoft Office 2003 zein Microsoft Office 2007 bulegotika paketeak euskaraz izateko.

• Microsoft Office 2003/2007 entzafaz-paketea (LIPa) instalatzeko laguntza


Lehendabizi, eskuratu beharko duzu dagokion “*Language Interface Pack*” (LIP) izeneko fitxategia; horrek aldatuko du zure office paketearen lan-hizkuntza. Horretarako, Internet nabigatzailearen bitartez, <http://www.euskara.euskadi.net> webgunera jo beharko duzu (“*Euskarazko Softwarea deskargatzea*” / “*Descarga de Software en euskara*” atala), eta han bertan dagoen fitxategia jaitsi.

Hurrengo webgunean, zuk nahi duzun fitxategia (LIP izenekoa) “*Bulegotika*” atalean dago. Hori dela eta, arratoia erabilia, “*Bulegotika*” esteka sakatu beharko duzu.




¹ LIPa: ingelesezko hizkiak dira eta honako esanahi hau daukate: “*Language Interface Pack*”


Atal horretan, ondorengo pantailan agertzen diren paketeak eskuragarri izango dituzu, Office 2003 zein Office 2007. Beraz, zure kasuan, sakatu beharko duzu, adibidez, “MS Office 2007 Edition-en interfaze-paketea” izeneko esteka:




Hori egin eta gero, Microsoft-en webgunea irekiko da, eta bertan dagoen informazioa eta fitxategia hartuko dituzu. Horretarako “Deskargatu” botoia sakatu beharko duzu:



Hori egin eta gero, “Language Interface Pack.exe” izeneko fitxategia jaitsiko duzu. Jaisteko bi aukera izango dituzu: alde batetik, “Guardar/Gorde” botoia aukeratu, horrekin aipatutako fitxategia zure ordenagailuan gordetzeko aukera izango duzu beste momentu batean instalatzeko; eta, beste alde batetik, “Ejecutar/Executatu” botoia sakatu, horrekin instalazioa zuzenean egingo duzu.




“Guardar/Gorde” aukeraten baduzu, lehendabizi, zure ordenagailuaren karpeta batean gorde beharko duzu (adibidez, mahaigainean, “Office_euskaraz” deitutako karpeta batean), hurrengo pantaila hau ikusgai izango duzu²:



Gero, Microsoft-eko webguneak eskerrak emango dizkizu fitxategia hartzeagatik.

LIP fitxategia, beraz, “Office_euskaraz” karpetan gordeta izango duzu. Hurrengo irudian ikusten den bezala, erabilitako karpeta ireki eta gero, “LanguageInterfacePack.exe” fitxategiak 16 MB inguru okupatzen du.



Orain, fitxategi hori instalatu beharko duzu, horretarako, arratoia erabilia, fitxategiaren gainean zaudela, bi aldiz sakatuko duzu arratoiaren ezkerreko botoia, hau da, klik bikoitza egingo duzu.

Oharra: Baliteke, laneko ordenagailuan instalazioa burutzeko, Administrari baten baimenak eduki behar izatea. Eusko Jaurlaritzaren langilea izatekotan deitu beharko zenuke ELZ/CAU (Erabiltzailearen Laguntza Zentroa) zerbitzura, hau da, 440 telefono zenbakira, eta bertan EJIeko teknikariek behar duzun laguntza guztia eskainiko dizute, besteak beste, “Administrari baimenak” emango dizkizute instalazioa gauzatzeko.

² Karpeta mahaigainean sortzeko, arratoia erabiliz, mahaigainean sakatu behar duzu ikonoak ez dauden edozein lekutan, ondoren, eskumako botoia sakatu eta aukeratu “Nuevo/Berria” eta “Carpeta/Karpeta”. Gero idatzi behar duzu gustukoaren duzun izena, adibidez, “Office2007_euskaraz”.

Aipatutako klik bikoitza egin eta gero, hurrengo irudian ikusiko duzunez, leiho berri bat agertuko da instalazioarekin hasteko. Dena den, instalazioari ekin baino lehen, komeni da betebeharreko baldintzak irakurtzea, badaezpada:




Pantaila horretan, agerian dagoen moduan, Microsoft-ek erakusten digu lizentzia-kontratu.


Kontratuarekin ados baldin bazaude, eta instalazioarekin jarraitu nahi izanez gero, aukeratu beharko duzu *“Egin klik hemen Microsoft-en software-lizentziaren baldintzak onartzeko”* eta, ondoren, sakatu *“Jarraitu”* botoia, leihoaren beheko aldean agertzen dena.

Lizentzia-kontratuarekin ados ez bazaude, berriz, nahiko da eskumako ertzean dagoen botoi gorria aukeratzea. Horrela, instalazioa bertan behera geldituko da eta bukatutzat emango duzu hasitako instalazioa.

Zure helburua da LIPa instalatzea, beraz, pantaila horretan, aukeratu beharko duzu *“Egin klik hemen Microsoft-en software-lizentziaren baldintzak onartzeko”*, eta, ondoren, pantaila horretan bertan *“Jarraitu”* botoia sakatuko duzu:




Hurrengo pantailakadan ikusgai denez, LIParen instalazioari hasiera emango dio ordenagailuak:



Segundo batzuk pasa eta gero, ordenagailuak jakinaraziko dizu instalazioa bukatu dela. Orduan, “Ados” botoia sakatuko duzu:



Instalazioa ondo egin dela egiaztatzeko, ireki dezakezu Office aplikazioren bat, esaterako, Word aplikazioa. Horrela, ikusiko dituzu menu guztiak euskaraz dituzula dagoeneko:



[Pantailakadak: Microsoft Office 2007 bertsioa]

Instalazioa bukatu da. Dagoeneko, prest daukazu zure Office paketea euskara hutsez lan egiteko. Horretarako, egindako instalazioak Office-ko aplikazioak abiaraziko dituzun hurrengo aldi izango du eragina.


Oharra: Office paketearen Laguntza ezin da “Microsoft Office Language Interface Pack 2007 Euskara”-ko hizkuntzara aldatu. Laguntza beti geldituko da jatorrizko instalazioaren hizkuntzan.

• Microsoft Office2003/2007ren interfaze-paketea (LIPa) kentzeko laguntza


Orain azalduko dizkizugu zer pausu eman behar diren Office paketearen euskarazko interfaze paketea (LIPa) kentzeko.

Aurreneko bertsioa berreskuratzeko, hau da, erdarazko bertsioa, ondorengo pausuak eman beharko dituzu. Dena den, prozesuarekin hasi baino lehen, komeni da aldez aurretik programa guztiak ixtea.


Ondoren, Windows-eko “Kontrol-panela” ireki behar duzu. Horretarako, “Hasi” botoia sakatu behar da eta “Kontrol-panela” hautatu, hau da, arratoiarekin klik egin.



Orain, “Kontrol-panela” ikusgai izango duzu. Bertan, hurrengo pantailakadan ikusiko duzunez, “Gehitu edo kendu programak” ikonoa aurkitu behar duzu eta gero, klik bikoitza eginez, ireki.




“Gehitu edo kendu programak” irekitakoan ondorengo datuak (edo antzekoak) erakutsiko dizkizu ordenagailuak.




Oharra: erabiltzaile bakoitzaren arabera (eta bere ordenagailuaren arabera) irudian agertzen den informazioa guztiz ezberdina izan daiteke.

Aurreneko pantailan ikusgai duzunez, programa zerrenda luze bat agertuko da, zeinak zehazten baititu zure ordenagailuan instalatuta dauden programa guztiak.


Zerrenda osoa ikusi ondoren, bilatu eta aukeratu beharko duzu “Microsoft Office Language Interface Pack 2007 - Euskara”, hau da, instalatu duzun LIP pakete berria. Ondoren, sakatu behar da “Kendu” botoia, eskumako aldean agertzen dena. [ikus hurrengo pantailakada]:



“Kendu” botoia sakatu eta gero, ordenagailuak honako galdera hau egingo dizu:



Aurkezten den galderari, “Bai” erantzun behar diozu, LIPa desinstalatu nahi baduzu. Horrela, ordenagailuak hasiera emango dio euskarazko interfazea (LIPa) kentzeari.



Dagoeneko, LIPa euskarazko interfazea kendu duzu.